

ALDE BAT

AKELARREAK BIZKAIAN

Anboto, Bizkargi Gorbea eta Oiz Bizkaiko sorgiñak hegalarri dabilte, ohitura zaharrea baina lege berriz, akelarre eder bat antolatuta nahiz.

Mendi gainetan gurutz handiak konjuroak eleizetan, kondenaatuak aurkitzen ziran hartulo eta leizetan.

Gauetan gizon naiz emakume egunez pizti ta abere, askatasina eskatzen dute Bizkaiko sorgiñak ere.

Anboto, Gorbea Oiz eta Bizkargi, bostehun ahuntz, ehun behor eta laurehun ardi, Ereñon oskorri, Mañarin oskarbi, mila sorgin dantzan akerrak adar bi.

Prakadun neskak eta mutillak lamiak eta sorgiñak, mendirik ibar zabaltzen doaz akel beltzaren dotrinak.

Bi eratako batzarrak dira mundu hau konpondu nahian kontzilioak Erroman eta akelarreak Bizkaiaren.

Hitzak: Lopategi
Musika: Gontzal Mendibil

AMA LURRA

Minez duzun irribarre gaixoa mendez-mende sufririk igan (di) tuzu egunak, apainduta kolorez eta kantauz baina zure edertasuna bustirik malkoaz.

Har itzazu kantuak, har itzazu gure indarrak, lanean aspertuko zaitut maite zaitudalako.

Ama lurra.

Hitz zaharrak lehortuta daudenian lehertu dira gauz berriak nire bihotzean; Suntsituz aintxinako bide haiek gaur eman beharra dago urrats egokiak.

Hitzak: Gontzal Mendibil
Musika: Gontzal Mendibil (Herrikoian oinharrituz)

ETA GOGOIA

Ozta-Ozta erne da hazi da gauaren beltzean; minaren min ez sortu zaigu lore berria.

Sinetsi genuen sorrera eta onetsi dugu bera.

Eta gogoia eta indarra herriaren erraieatik dator.

Egun; uholdeak dira, zurrumbilao. Baina guretzat hazaldia da eta ez etsi!

tinko, eutsi! etsaiari eutsi, hautsi.

Hitzak: Gontzal Mendibil
Musika: Gontzal Mendibil

BAKE AHULA

Bakea, bakea daukagu bakea, bakean bizi gara, baiña zer dan bakea? itza ederra da baiña nun dago gaur bakea?

Zigorren bakea, eziñaren bakea txiroen bakea ta jauntxoen bakea kanhoien bakea, izkilluen bakea segadaren bakea, indarrezko bakea. Bakea daukagu bakean bizi gara baiña zer dan bakea? nun dago gaur bakea?

Goseakilen bakea, gaixoen bakea menperatuen bakea ta salduen bakea aundizaleen bakea, gorrotzko bakea tximiñoen bakea, gezurrezko bakea.

Holan ba-da, ez dugu nahi bakerik deadar egin daigun, hau bakea ba-da ez dakigula zer dan bakea, justizia gura dogula, justizia ez da zapaltzea gorrotzo ere ez; Maitasuna dago lotan gezur asko ahotan saldukaria gehiegi. Hau bakea ba-da nik ez dot nahi.

Hitzak: Gontzal Mendibil
Musika: Gontzal Mendibil

GIZONA GILTS

Tankeak jaun buruzagia gurdia baiña indar gehiago du, zuhaztiak suntsitu bezela ehundaka gizon ditzake erahildu, baina akatsa ere badu gidari bat behar bait du.

Egazkinak jaun buruzagia tximiztak bezela egazten du idiak baino zama gehiagorekin herri ta uriak ditzake kizkaldu, baina akatsa ere badu gidari bat behar bait du.

Gizonak jaun buruzagia edozterako halio omen du egazteko ta erahiltzeko baina inola ere ez ahaztu, here akatsa ere badu noizbait pentsa ahal bait du.

Hitzak: B. Brecht - B. Kapanaga
Musika: Gontzal Mendibil

ALDE BI

HERRIA MAITATZEKO

Herria maitatzeko era asko dago.

Baina lehen eta beti beharrezko doguna gure buru-bihotzak auzo-lanean jarri, ekintzarako gerturik.

Galdegin dakianari, ez dakiguna ikasi gure kultura sendotu ta itsu dagoanari dakiguna irakatsi.

Lagun lanean danari ta eskaini esku bat herritar zapalduen giza-eskubideak beti garaian ipiniz.

Nekazariak areaz pentsatzaileak loa galduz irakaste ta langille arrantzaleak arrantzen herria-maitatzen diardu.

Irakasten ta ikasten, arrantzetan naiz pentsatzen herria dugu maitatzen.

Lur lanetan naiz pintatzen, fabriketan naiz kantatzen herria dugu maitatzen.

Hitzak: B. Kapanaga
Musika: Gontzal Mendibil

EGUNSENTIARI

Egunguentiaren poz handia hurbil dago. Udaberriaren uzta goxo helduko da, zaude ziur, eta orduan gure Herrian idealak egiz, sendar berriz bihurturik izanen bai dira.

Beldurrak arimatik kanpora garai izango dira bunuak aske izango jakituna, gizarte hura bai ederra. Gure gaurko oihu guziak ez daitezten galduak izan, ekintza iraultzaileak Egunguentiari agurra.

Hitzak: Gontzal Mendibil
Musika: L. F. Barandiaran - Gontzal Mendibil

SARI BAGE

Bihotza nahi badidazu eman barka arren eta gogoan izan, inork ez daidal errua bota zerbait gertatzen den orduan.

Haizeak zehatzen du bidegurutzean dagoen etxea. Ez zaite beti pentsatzen ari bihotza nahi badidazu eman.

Batzuek eta besteek zaurituko zaitue, zure lan nekea ikusi izango duzu ondoren bagea.

Barka arren, lagun saririk ez duzu, gehien ematen duena ez da izaten beti gehien hartzen duena.

Hitzak: Gontzal Mendibil
Musika: Gontzal Mendibil

IRAULTZAILEA

Hego haizeaz, bazterrik bazter nabil orbela bezela. Iraultzailea orbela duzu, bide bazterreko orbela.

Baina orbela zimaurrea duzu lurrarentzako zimaurrea, hargatik batzuk deitua naute Andre-Esperantzaren haurra.

Bakarrik nago, umezurtz nago bakar bakarrik nago, mintzatu eta ez naute ulertzen, beiratu eta ez naute ezagutzen.

Baztertu naute iraultzailea naiz, Udaberria agertzen zait negu garaiz, ikusten dut geroa omen naiz eroa.

Ilunetan presorik nago, iraultzailea naiz eta hartako kartzelan hilgo naute baina iraultza (geroa) ez dute hilgo.

Hator anai gazte iraultzaile, herriaren ume, gora Herriko eroa geure geroako.

Hitzak: Telesforo Monzon
Musika: L. F. Barandiaran



Korda
Erauspen
Koruak
Pianoa eta Zuzendaria
CARLOS LAPORTA SEGARRA

Txilibista
BEGOÑA AGIRRE

Tromboia
Akordeioa
Adar
Behe

AINGERU BERGIZES

Gitarra
KARMELO SARRIONAINDIA

Gitarra
Txistu
Musugitarra

Ahots
GONTZAL MENDIBIL

Zuzendaria:
CARLOS LAPORTA SEGARRA

Konponketa:
GONTZAL MENDIBIL ETA BERE TALDEA